

BARATZAKO EGONALDIETARAKO DEIALDIA

ARRAZOIA ETA XEDEA:

Baratza Aretoa (Arrakala Koop) Gasteizen egoitza duen erakunde pribatua da. Bere xede nagusia sortzen ari diren sorkuntza eszeniko hasiberri garaikideei laguntza eskaintzea da. Kultura kate bat bezala ulertuta, laguntza hori katearen begi bakoitzean gauzatzea da helburua, formazio jarduerak, programazioa zein sorkuntzarako laguntza emanez.

Sorkuntzarako laguntza horren muina **egonaldi artistikoetarako deialdia** da. Egonaldi horren bidez, artista berriei (bai adinaren bai haien karrerako momentuaren arabera) beren prozesu artistikoetan laguntza eskainiko zaie, alde batetik, lan horiek aurkeztu eta zabaldu ditzaten, eta bestetik, esploratu eta beste leku batzuetatik proposamenak egin ditzaten. Gure aretoaren ezaugarri teknikoak direla eta, antzerki fisikoa, dantza, performancea oinarri duten proposamenak eta formatu ertain-txikiko proposamen ibiltariak edota site-specific gisakoak bilatzen ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari eta haren Sorkuntza Lantegiak programari esker, urtero hainbat egonalditarako bekak eskaintzen dira. Aurtengo artisten aukeraketa **DEIALDI** honetan ezarritako xedapenen arabera egingo da. Hona hemen oinarriak zehaztuta:

OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak.

Deialdi honetara **edozein artista edo kolektiboa** aurkez daiteke. Ez dago adin edota herritartasun mugarik. **Bi BEKA** emango dira eta gutxienez bat Euskadin bizi den konpainia edota artista batentzat izango da.

2. Proiektuak

Aurkeztutako proposamenak **berriak izan behar dira edota abian edo hobetzeko edo zabaltzeko bidean**. Artista edo kolektibo bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake.

Egonaldi bekak sorkuntza prozesuaren iraunaldia finantzatzen laguntzeaz gain, egonaldian iraun artean Gasteizera egindako joan-etorriak ere barne hartuko ditu.

Egonaldiak irauten duen bitartean (edo gehienezko hilabeteko epea igarotzean), **prozesua konpartitzea** (ordainsaririk gabe) eskatuko zaie artistei hala tailer, erakusketa, nola komunitatearekin bitartekaritza ekintza bat eginez. Horren xedea, proiektua Baratzako komunitateari hurbiltzea da. Konpainiak bertako talde baten beharra izanez gero proposamenean idatzi beharko du (adibidez haur talde batekin, erretiratuekin edota edozein giza-taldearekin).

Proiektua arte eszenikoen baitan sartzen den **edozein diziplinakoa** izan daiteke, beti ere aretoan sartzen badira (**6x6, altuera 2.70m**). Egonaldia lortzen duten artistek aretoak dituen elementu guztiak erabil ditzakete (proiektorea, soinu ekipoa, argi ekipoa, linoleoa, harmailak) beti ere hitzartutako ordutegiaren barruan eta tekniko baten presentziaren beharrik gabe. Egonaldiaren bitartean elementu teknikoak behar izanez gero proposamenean idatzi beharko da, egonaldiaren hasieran teknikariarekin muntaia egiteko.

3. Eskaeren aurkezpena

Eskaeren aurkezpena **online-formulario baten bitartez** egingo da. Formularioa ekainaren 15etik uztailaren 15era 23:59arte erabilgarri egongo da. Eskaera baliozkoa izateko formularioan agertzen diren eremu guztiak bete beharko dira eta, ondoren, agertzen den dokumentazio guztia atxiki:

- Proiektuaren deskribapena
- Konpainiari buruzko informazioa
- Erreferentzia grafikoak: argazkiak edo bideoak
- Konpartituko den ekintzaren proposamena: work-in-progress, tailer edo bitartekaritza ekintza.

4. Baratzaren ekarpena

Proiektuek garapen egokia izan dezaten, Baratzak baliabide material eta pertsonal zehatz batzuk eskaintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Artista bakoitzari, beren proiektuak garatzeko, **Baratzako espazioa gutxienez aste betez erabiltzeko aukera** emango zaie. Espazio honek wi-fi konexioa, espazioen garbiketa basikoa eta fundazioak dituen baliabide teknikoak (riderra kontsultatu) zein sukaldea* erabiltzeko aukera emango die. Proposatutako epeak **Irailaren 3tik 9ra edo 10etik 16ra** izango dira. Egonaldi bat lehenengo astean izango eta bestea bigarrean. Mesedez, zehaztu zein nahiago duzuen.

- b) **900€-ko (+zergak) diru-laguntza bat (faktura bitartez)**. Diru hau proiektua gauzatzera, entseguetara eta sorkuntzara bideratua izango da. Beharrezkoa izanez gero, etxe pribatu bat eskainiko da, gehienez 4 pertsonarentzat. Etxe horretan komuna, sukaldea eta abar daude eskura. Egonaldia bukatzerakoan lekua garbitu beharko da, zegoen bezala uzteko. Kalteren bat egonez gero, kosteak fakturatik kenduko dira.
- c) Proiektuaren **garapena** bermatzeko Paraside kolektiboaren eskutiko **aholkularitza artistikoa** eskainiko zaie eta DOOS kolektiboak, aldiz, kontabilizazio, zabalkunde zein **aholkularitza legala** eskainiko die.
- d) Proposamenaren **sustapena eta zabalkundea gure webgunean eta sare sozialetan** egingo da.

4) Parte-hartze konpromisoa

Egonaldia amaitu eta artistak memoria labur bat aurkezteko konpromisoa hartuko du.

Formularioa aurkeztean, parte hartzaileek betebeharrak onartuko dituzte:

- a) Zabalkundea helburu, beren izena aipatzeko eta prozesuaren/obraren zatiak grafikoki edo ikus-entzunezkoen bidez zabaltzeko baimena ematea.
- b) Aurkeztutako proiektua, inola ere ez beste bat, garatzeko emandako datak onartu eta betetzeko konpromisoa.
- c) Idatzizko edozein euskarri erabiliz gero, “Baratzaren laguntzari esker” eginda dagoela aipatu beharko da eta beharrezkoa den kasu guztietan logoa agertu beharko da.

Zalantzarik izanez gero, info@salabaratza.com helbidera idatzi.

Ebazpena e-mailez komunikatu eta webean publikatuko da gehienez hilabete barru.